

Ana Mari Etxabe Egaña

*Zumaia,
Gipuzkoa (1944)*

Aurkibidea

Biografia



"Intxaurrondonekua". Mari kalean bizi izan da. Azken urteotan, San Telmo ermita zaintzen laguntzen du. Berekin batera, [Ramon Zubia](#) ere agertzen da elkarrizketa berean.

Zintak

ZUM-017

- **Proiektua:** Zumaiaiko hizkera
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2007-12-12
- **Iraupena:** 22 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Transkribatzailea(k):** Zabaleta Zuloaga, Miren

Pasarteak

1. Zumaia erdian txerria ukuiluan

- **Erref:** ZUM-017/001
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:03:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Zumaia erdian, bere etxe ondoan zegoen etxe baten deskribapena. Bi pisuko etxe arrunt bat zen, baina ukuilua zuen. Txerri bat hazten zuten bertan. Goitik terriari belarra botatzeko zulo bat zegoen. Txerria egunero ateratzen zuten pasiatzera eta jendeak janari soberakinak ematen zizkion. Gauza arrunta zen hori lehenago. Ukuilua garbi-garbi edukitzen zuten.

Transkripzioa

- Esplikatuko diazu hori, kale-baserriyak eta...
- (Ana Mari) E?
- Kale-basarrixak zian?
- (Ana Mari);Qué va! Kale-basarrixdak? Politta, politta, gure kalia. Número, ze numero da hura? Bai, Maria Luisa Urbietta, ze numero entrada? Uan dao Valentin Manterola hau, ezautzen al dezu? Pintoria. Daka uan esposizidua jarrita han. Hori zan itxe bat, itxe normal bat, normal bat, bi pixokua. Ta geo zakan okoillua, behian, okoillua. Atiak zeatzen zian, ba, baserrikuak, honela, ta geo bi pusketakua. Eta han zakan, behe-behian, okoillua, txerri bat. Ta geo, nola da, erderaz, entresuelua? Euskeraz ez dakit nola dan. Entrada sartu ta segituan, han, belarra, belarra eukitzen zun txerri horrentzako. Han, ez dakit, ate bat o ez dakit. Hamen, belarra, belarra, belarra. Ta bakizu lurrian nola eoten dan irikitzeke? Eske, izena daka... Belarra botatzeko txerridxai, goitikan?
- Aska.
- (Ana Mari) Bai, goitikan.
- Bai, goiko pisan eo, ranpa...
- (Ana Mari) Bai. Eta txerridxen gaiñea eroitzen zan belarra, jana, ez? Ez zan, okoillua zan. Kale-baserridxa ez, okoillo bat, politta. Eta han txerri bat hasitzen zan.
- Kale... Zumaidxa erdi-erdixan?
- (Ana Mari) Bai, bai, bai, bai. Nere etxian onduan. Nere etxian onduan, Calle Marin.

- Eta gaiñera nahiko normala izango zan hori Zumaixan?

- (Ana Mari) ¡Por supuesto! Egunero pasiatzen zun!

- (Ramon) Bazeuden, gehio´re bazeuden, Calle San Telmon´e bai. Ta geo pasiara ateatzen zuen.

- (Ana Mari) Pasiara. Calle San Telmon´e bazan, [...].

- (Ramon) [...].

- (Ana Mari) Eta [...]. Baiño hori zan, guria da número once, horrek ez dakit ze numero dakan, Valentiñek. Impares, impares dia.

- (Ramon) Nueve, o...

- (Ana Mari) Seis o... Seis o usten det dala. Eta beaidxek bakarrikan bizi zian. Oseake, gizona zan arrantzalia, eta andria, ba, txerri hori ta baratza ta souak eta. Eta txerri hori ekartzen zun txiki-txikidxa, oso politta. Ta klaro, hasitzen zijuan bezela, baiño egunero-egunero-egunero ateatzen zun. "Krun, krun, krun!" "Kurrin, kurrin, kurrin, kurrin!", zimitadxoaiño. Zimitadxon buelta ematen zun...

- (Ramon) Geo jendiak itxeko sobrak ematen zidxoan.

- (Ana Mari) Ibiltzen zan... Ogidxa!

- (Ramon) Bazeon andre bat Erramona Txarri esaten genduna, ta itxetatikan ta jasotzen zun sobrak: ogi-koskorak eta patata-azalak eta naranja... Eta Erramona Txarri esaten giñon.

- (Ana Mari) Bai, baiño harek zakan okuilluan. Baiño honek, uan uan esposizidxa daka han!

- Itxeko sobrak eta.

- (Ana Mari) Bai, egunero etortzen zan gurea´re. "Ba al dezue zeoze?" O patata-azalak eo igual ez, beste zeoze, ogi gogorak eo...

- (Ramon) Eta geo zeoze ekartzen al zizuen? Urdaidxa eo?

- (Ana Mari) Ez. Beti zorretan gelditzen zan, porke paatu dunakin, berridxa ekartzen zun. Oseake, bat kendu ta bestia jarri. Haundidxa iten zanian, ya, saldu iten zun. Baiño haren ordaiñez ekartzen zun bestia. Eta harekin, harek balidxo zunakin ta ez dakit ze, beti zorretan. Sekula ez zan aillatzen ezer´e. Baiña beno, ohitura oso politta. Geo San Fermiñen egunian korrida bezela iten zan zezenakin.

- (Ramon) Ohitura politta, baiño uan, usai hura, orduan´e ez giñan akostunbratzen.

- (Ana Mari) Ez zeon hanbesteikan!

- (Ramon) Garbitu ingo zun.

- (Ana Mari) Bai, por supuesto. Beti garbi-garbidxa zeon. Bai, eske txokagarridxa hori da, oseake, gaiñea okoillo ederra, harrizkua. Eta behian, pisua zeon. Amaiako plazatikan pisua zan.

- (Ramon) Bai, baiño sarri-sarri garbitu beharko zun.

- (Ana Mari) Por supuesto, beti garbi-garbi eoten zan. Beti-beti. Haitza, dana haitza zan.

2. Traineriletan kopa irabazi eta herriaren harrera

- **Erref:** ZUM-017/003
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:04:35. **Bukatu:** 00:06:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Uretako kirolak

Laburpena:

<p>Zumaia estropadetan bandera irabazi izan duenetan, San Telmora joaten ziren denak prozesioan bandera bedeinkatzera. Ohitura hori nahiko berria da,

lehenago ez zuten banderarik irabazten eta. Zumaiar batzuk Madrilen traineriletako kopa irabazita etorri zirenean herrian egin zitzairen harrera. Bestelako harreraren bat zegoenean ere beti Zubi-txikira joaten ziren zumaiarrak.</p>

Transkripzioa

- Beste gauzatxo bat, lehen San Telmo ta aitatu deu, ta zuk jakingo dezu, hor, banderak eta irabazten zianian, ta irabazten dianian, San Telmora ta eramaten zian? Traiñerutan eta...
- (Ramon) Bai, Don Josek bedeinkatu iten zitun...
- (Ana Mari) Bai, baiña hori uan dala denboa gitxi, porke eske klaro, lehen ez zun irabazten.
- (Joxe Miguel) Lehen-lehen ez.
- (Ana Mari) Ez. San Telmoa bai, prozesidxuan bezela, bedeinkatzea. Bedeinkatu, bedeinkatu ta meza.
- Baiña hori ez da lehen-lehengo kontua?
- (Ana Mari) Ez, ez, ez, ez.
- (Ramon) Ez. Lehen irabazi zun behin eo bitan eo, baiño...
- (Ana Mari) Bai, baiño irabazi... ez!
- (Ramon) Banderak [...] aiuntamentuan, baiño hola, bedeinkatu're...
- (Ana Mari) Ez, ez. Geo hasi zianian ya bastante ta zea, ba, in behar zala, bedeinkatu in behar zala, ta prosezidxuan bezela, meza...
- (Joxe Miguel) Meza, meza...
- (Ramon) Trainerillen kanpeonatua Espaiñikua Yeregineko bi eo hiru anaiek Madrillen irabazi zuen. Casa Campoko laguan in zuen regata, trainerilla, ta irabazi in zuen, Yeregi, Iñaki Yeregi ta...
- (Ana Mari) Bai.
- (Ramon) Ta Madriden irabazi zuen, eta izugarrizko rezibimentua, gorridxa zan orduan ere...
- (Ana Mari) Bai, beti gorrixa Zumaidxa.
- (Ramon) "¡Viva los rojos!" han jende dana, zeoze aprobetxatu behar zun ta. TA bandera gorridxakin erten gendun, zeoze, jendiak zeozarren manifestazidxua nahi gendun, ta Madritik ekarri zuen, kopa o ekarriko zuen, bandera ez...
- (Ana Mari) Kopa usten det.
- (Ramon) Kopa usten det ekarriko zuela.
- (Ana Mari) Kopa usten det.
- (Ramon) Izan zan rezibimiento bat, bueno. Jende dana, obispua etortzen zanian ta danak zubi txikira jutun giñan.
- (Ana Mari) Bai.
- (Ramon) Eta dana girnaldaz betia.
- (Ana Mari) Las reliquias de Santa Teresa, ta danak zubi txikira.
- (Ramon) Zenbat gauza pasatzen zian ordun Zumaidxan. Beti zeoze bazan, zentenaixon bat o eskapulaidxua o zeoze bazan, danak jutun giñan zubi txikira, ta etortzen zian, eta han iten zian rezibimientuak eta.

3. Hildakoen inguruko ohiturak; sepulturak; pildumena

- **Erref:** ZUM-017/005
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:07:30. **Bukatu:** 00:09:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Domu Santu edo Santu Guztien Eguna

Laburpena:

<p>"Pildumena" zer zen: espiralean doan kandela mehea. Elizan jartzen ziren halako kandelak arimen egunean. Familiakoren bat hildakoan, familia bakoitzak bere sepultura izaten zuen elizan urtebetez. Han ere jartzen ziren kandelak trapu beltzaren gainean.</p>

4. Hildakoen inguruko ohiturak; errespontsuak; lutoa

- **Erref:** ZUM-017/007
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:09:50. **Bukatu:** 00:11:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

<p>Nor bait hiltzean dirua ematen zitzaion familiari laguntza gisa. Diru hura elizako sepultura gainean jartzen zen trapu beltz baten gainean eta handik apaizari errespontsuak ematen zitzaizkion (3 txakur txiki bakoitzean). Peldumena eta kandelabroa jartzen ziren sepultura gainean. Emakumeak mantila beltzarekin joaten ziren. Lutoa sakratua zen eta 2-3 urte irauten zituen.</p>

Transkripzioa

- (Ana Mari) Eta orduan han jartzen zan trapu hura ta han dirua botatzen, dirua zer zakazun, diru hura han jartzen da, trapu hartan. Eta apaizak hasitzen zan hiru perro txiki, errespontsua. Hiru perro txiki ta taka!, hiru perro txiki, ta peldumena, hura. Eta geo meza nausita ta jutun ziñanian, zeure sepulturan, peldumena hura jartzen zan.

- Eta piztu?

- (Ana Mari) Ta piztu. Trapo beltz batian.

- Eta zuen sepul... Zuek jarri ere, sepultura inguruan edo exeritzen zan?

- (Ramon) Bai. Bazekidxen nun zian, ze lekuak zian.

- (Ana Mari) Bai, bai, bai, bai. Nik badakit guria nun zan uaindikan ere.

- (Ramon) Eske, erditikan aurea bankuak zian, banko luziak, gizonezkuenak. Baiño erditik atzea zian sillak.

- (Ana Mari) Sillak, emakumientzako sillak, sueltuak. Oain ere izango dia dendan batzuetan. O dendan ni berriz, elizan.

- (Ramon) Eta silla hoidxek moitu iten zian, ta gaiñea kobratu zeoze [...] ibiltzen zian.

- (Ana Mari) Bai, hiru perro txiki sermoitan paatzen zian.

- (Ramon) Orduan, silla ta silla tartian lekua bazeon jartzeko horrek esan duna, zapi, trapo beltz bat, bere pildumenakin.

- (Ana Mari) Bere pildumenakin.

- (Ramon) Bestiak, kandelak ere [...].

- (Ana Mari) Kandelak ere bai izaten zian. Bi kandela, kandelabruak, eta erdidxan peldumena hori izaten zan.

- (Ramon) Difuntua ta jutun zian familikuak, alabak eo alarguna, alarguna ez, baiña familikuak, manteliñakin, danak beltz-beltz-beltz jantzita. Zuk ezautu dezu hori?

- (Ana Mari) Bai, bai, bai. Nere ama, bere, bere...

- (Ramon) [...] lotzen zian...

- (Ana Mari) Bai.

- (Ramon) ... manteliñak zian puskak, ta iten zuen tunika bat bezela, beltz-beltz-beltz jantzitzen zian. Ta hantxen eoten zian eleizan zeakin, ez dakit zenbat denpoan...

- (Ana Mari) Bai, ez dakit, urte betian o izaten zan...

- (Ramon) Lutuan´e hiru urte o ze izaten zan?

- (Ana Mari) Bai, lutuan´e denboa asko. Bi urte behintzat beltzez.

- (Ramon) Bi urte, urte bete [...], alibidxua.

- (Ana Mari) Bai.

- (Ramon) Blusa zuri bat eo lazo bat eo...

- (Ana Mari) Bai, baiña bi urte pasata, e!

- (Ramon) Ta baten batek puskatzen bazun, alargun batek pixkat o, o dantzan ikusi zuela, eo, ez dakit ze in zuela, adios! Marmarrak eta... Lutua izaten zan fuertia.

- (Ana Mari) Muy sagrau, muy sagrau.

5. Pildumenen inguruko azalpenak

- **Erref:** ZUM-017/008
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:11:30. **Bukatu:** 00:12:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Pildumenak gaur egun ere artisauei ikusten zaizkiela komentatzen dute. Pildumenaren inguruko azalpenak. Alberdineko pastelerian egiten zituzten pildumenak.

Transkripzioa

- Ba, pildumen hori uan ikusten da ta igual ikusita eukiko dezu zuk, eskual lanak, hemengo kutxak eta, kutxak eta iten dia, ba? Eta bestiak, eske, nik izena...

- (Ramon) Argizaiola.

- (Ana Mari) Argizaiola.

- Argizaiolak eta inguruan...

- (Ana Mari) Huri da! Bueltaka hori da peldumena.

- Baiña zuek ez dezue ezautu hori?

- (Ana Mari) Ez, guk lurrian.

- Lurrian. Zuzenian pildumena.

- (Ana Mari) Bai, bai, bai, bai. Honela iten zan, oan´e igual salduko due, ez dakit, e! Honela ta tak!, ta geo tak, punta. Ta hura segun gastatzen zijuan bezela, juten zan eskatzen, dana bukatu arte.

- Eta erosi?

- (Ana Mari) Erosi dendetan. Gu [...] Sorazunian, baiña Alberdinekuakin ta. Pasteleidxan.

- (Ramon) Bai. Lehenon konfiteidxan, ez zan izaten pasteleidxan, [...] konfiteidxan [...], ta iten zituen kandelak eta pildumenak.

- (Ana Mari) Bai.

- (Ramon) Nik Panplonan ikusi det denda bat oaindikan pildumenak saltzen dituenak.

- (Ana Mari) Bai, uain huri tipikua bezela dao, e. Tipikua bezela dao. Nik hamen ez det ikusi aspaldidxan. Igual eon laike.

- (Ramon) Nik hamen´e ez. Donostidxa ez det ikusten hori.
- (Ana Mari) Ez dakit. Nik ez det ikusi hemen.
- (Ramon) Geo, argizaiolak ere modernuak saltzen dittue denda horrela pixkat tipikuak. Ta han eoten da lotuta pildumena.
- (Ana Mari) Bai.
- (Ramon) Baiño nun o nun iten dian.

6. Hildakoen inguruko ohiturak; errespontsuak; sepulturak

- **Erref:** ZUM-017/009
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:12:50. **Bukatu:** 00:14:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

Elizaren aldaketarekin batera galdu ziren hildakoen inguruko ohitura zaharrak. Arimen Egunean, eliza kandelaz beterik egoten zen eta belztuta irteten ziren elizatik. Apaiza sepulturaz sepultura joaten zen eta norberarenera iritsi artean itxaron behar. Norberarengana iritsitakoan, diruak gastatu arte hantxe egon behar izaten ziren.

Transkripzioa

- Eta gutxi gorabehera noiz galdu zan tradiziyo hori, ba, zapi beltza ta pildumena...
- (Ana Mari) A! Karo! Eleizan aldaketak etorri zianian.
- (Ramon) Sesenta y dos...
- Sesenta y...
- (Ana Mari) Bai, porke ni nere amonakin eon nitzan katxarro horrekin. Bai, eleizako aldaketa in zuenian.
- (Ramon) Baiño eleizatik ertentzen gendun, hainbeste peldumen ta hainbeste kandela Anima Egunian, beltz.
- (Ana Mari) Beltz-beltza.
- (Ramon) Ordu betian eoten giñan, e!
- (Ana Mari) Dana beltz-beltz.
- (Ramon) Dana [...] buruko min [...]. Honela in sudur-zuluan ta dana beltz.
- (Ana Mari) Dana beltz.
- (Ramon) Zeon zientoka kandela.
- Animen Egunian.
- (Ramon) Anima Eguna.
- (Ana Mari) Bai. Geo egunetan, egunetan eoten zan zapi horrekin, dirua bukatu arte. Oseake zuk sepultura bat baldin bazakazun aurrian, zeoze, porke hasitzen zan apaizan aurretikan, respontsua ta hiru perro txiki o lo que sea, pezeta. Beste respontsua? Ta berriz'e, bukatu arten. Geo aldamenekuai. Ta guk gendukan atze-atzian, atien onduan sepultura. Baiño hantxen eon bihar, zuria tokatu arten. Eta zuria bukatu arten... Nik behintzat lo hartu nun, ta manteliñak´e sua hartu zian. Eta hantxen... Karo, gure amak eta egun guztidxa han. Eta jun zea, ba, uan zu guk jatordua o zeoze iteko, ta hantxen. Zure txanda tokatu arten. Eta [...], punba!, hiru perro txiki. [...], punba! Ta asko baldin bazazkazun... Gutxi baldin bazan ez, baiño, han eon behar. Eta geo, peldumena hori eramaten zan meza nausira eo urte betian, eo ez dakit noiz arten izaten zan hori.
- (Ramon) Bai, izaten zan anibersaidxua ta pasatzian. Meza, meza, nola

izaten zan?

- (Ana Mari) Baiña diruen kontu hori egun guztidzan eleizan.

- (Ramon) Gregorianak eta hogeta hamar meza, goizian goizo igual jartzen zuen, goizeko sei t´erditan, ta hara juten zian. Ta azkeneako jendia nekatu iten zan. Fedia baiño´re, debozidxua baiño gehidxo, aspertu. Horrek esan duna, dirua´re, amorratzen diru hura...

- (Ana Mari) Bukatzeko geo amorratzen!

- (Ramon) Bi orduan nola eongo ziñan [...].!

- (Ana Mari) Ez! Egun guztidzan ere bai! Eta egun batian bukatu ez ta beste egunian ta. Bukatu arten danak! Eta guk azken-azkena gendukan ta a!, bueno, guk pasatu gendun han! Bueno, bueno, bueno! Bukatu arten!

7. Zazpi aldaretan mezak

- **Erref:** ZUM-017/010

- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:14:50. **Bukatu:** 00:16:30

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak

Laburpena:

<p>Zazpi aldare zeuden lehenago eta egun batzuetan aldare guztietan egoten ziren apaizak meza ematen. Estipendioa. Norbait hildakoan hildakoari "meza ateratzeko" ohitura.</p>

Transkripzioa

- (Ramon) Geo zauden altare asko, ta apaizak mezak ematen zituen altare danetan. Uain bat daon bezela, kapillan bi, San Josena, lau, bost altare... ez gehidxo! O bai, sei. Sei altare zauden. Ta erdikua zazpi.

- (Ana Mari) Non zian ba, bestiak? Erdikua, bi kapilla...

- (Ramon) Geo zauden aurrian, zean, San Telmo [...] beste bi altare.

- (Ana Mari) Bai, bai, bai. Uan ixeritzeko dabezen banko hoidxetan, ez?

- (Ramon) San Jose, eta animen purgatoixotakuan, sei, zazpi. Ta bazian egunak danetan apaizak meza eman ta meza eman, danak difuntuaneko. Ta meza bakoitzak zakan estipendio esaten zidxoen zea, dirua zakan. Ta honek esan duna, familiya hola zeeze zana, diru asko jasotzen zuen ta dana hua gastatu arte, mezak, gregorianak, eta.

- (Ana Mari) Egunak eta...

- (Ramon) Egunak eta segi! Uaiñ ere, uaiñ ere hori´re badake ohitura, hori nei ez zait behiñ´e gustatu baiño, meza ateatzen didxoe igual bere amen eguna da... ateatzen al dezue meza?

- (Ana Mari) Ez, laga in nun.

- (Ramon) Zuek?

- (Ana Mari) Nik laga in nun, laga in nun...

- (Ramon) Badia uaindik jendia jun ta apaizai...

- (Ana Mari) Eta hemen ere bai...

- (Joxe Migel) Hamabi duro.

- (Ana Mari) Oan hamabi euro, ta laga in nun.

- (Ramon) Mezetan izena esaten ditu.

- (Ana Mari) Bai.

- (Ramon) Honen amena, honen aittena, taka-taka. Askotan Maria esaten du, ta Mariak berrogei dabez Zumaidzan.

- (Ana Mari) Bai.

- (Ramon) Baiña geo hori esaten du, Concilidxuak ekarri zun difuntu guztidxenak, danenak esateko mezetan esaten du. Ta difunto danak sartzen diala orazidxuan. Orduan ez dakazu ze aitatuikan [...] izena.

- (Ana Mari) Bai, oaindikan, uan dala denboa gitxi...

- (Ramon) Andre Maiko egunian mezeta jun ta igual esan zituen hogeita hamar!

8. Aste Santuan erretaulako irudi guztiak estalita

- **Erref:** ZUM-017/012
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:17:15. **Bukatu:** 00:18:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Aste Santua
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

<p>San Lazaroren inguruko azalpenak. San Lazaro egunean elizako erretaulako irudi guztiak estali egiten ziren. Aste Santuan tela morez estaltzen ziren elizako irudiak. Berpizte egunean berriz estalki guztiak kentzen ziren.</p>

Transkripzioa

- (Ramon) Erramua baiño lehenagoko jaidxa zan Lazaro, esaten zidxuen. Lazaro da, Lazaron milagrua badakizu, Marta ta Marian anaidxa zala ta, hil in zala ta Jesusei deitu zidxoan ta "berandu zatoz, hiru egun da hilda daola". Ta Jesusek zeatu in zun, resuzitatu in zun Lazaro. Eta Lazaro esaten da. Lazaro egunian iten zuen Zumaiko erretaula goitikan behera, ez dakit ze polea eta zer ibiltzen zian...

- (Ana Mari) Baiño danak, ez Zumaidxan bakarrik.

- (Ramon) Bai, eliz danak. Baiño Zumaiko retablua, e!

- (Ana Mari) Tela.

- (Ramon) Tela more, more-more dana.

- (Ana Mari) Baiño tela...

- (Ramon) Santo danak, dana tapatzen zan.

- (Ana Mari) Dana, dana, ta ez da ezer ikusten.

- (Ramon) Orduan lan haundidxa eoten zan porke hasten zan zeakua´re, ostial santuko monumentua´re eskaletakin´e, jesukristoko tinglaua. Ta zebeñ Xakunekuak eta uribetarrak eta Ostolaza, jende asko ibiltzen zan parrokidxan lanian.

- (Ana Mari) Bai, jende asko zeon hor.

- (Ramon) Gasto haundidxa, gastua. Uaiñ ez da ezer´e iten.

- (Ana Mari) [...] Gabian prepaatzen zan Andre Maikua, gabian.

- (Ramon) Ta han polea batzuk eta bazaben retabluan, ta dan-dan-dana more-more-more, dana. Aste Santuetako elizkizun dan-dan-danak, danak more-more-more. Ta errezurrezi goizian prozesidxuak juten zianeako ya dana kenduta eoten zan.

- (Ana Mari) Oseake, gabian iten zuen lana.

- (Ramon) Kentzen zuen momentutikan hautsak´e garbitzen zituen ta behiñ´e baiño ederro azaltzen zan eleiza. Hori´re zan Aste Santutako, oso politta. Bai.

- (Ana Mari) Politta zan.

- (Ramon) Ta santua, zapidxa moria, tela...

- (Ana Mari) Errespetua ematen zun.
- (Ramon) Izugarridxa, izugarridxa.
- (Ana Mari) Errespetua ematen zun harek.

9. Zumaiaiko eliza eta ermitak

- **Erref:** ZUM-017/013
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:18:30. **Bukatu:** 00:20:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak

Laburpena:

<p>Zumaiaiko elizak: San Telmo, "Andremaixa" (Arritokieta), Zuloaganeko finkako kapera, San Migel (Artadikoa) eta Oikiako San Bartolome. Komentua; zenbait ikastetxetan ere kaperak zeuden lehenago. Komunio, hileta eta ezkontza gehienak parrokian izaten ziren. Bederatizurrenak eta bestelakoak ere parrokian egin izan dira. Andra Mariko elizan noiz egoten diren meza eta bederatziurrenak. Gaur egun jendea Arritokietan edo San Telmon ezkontzen da, leku politak direlako.</p>

Transkripzioa

- Beste galderatxo bat. Zumaixan zenbat eliza, eo zeintzuk dia eliza ta ermita ta...
- (Ramon) Ermita honek esan duna, San Telmo ta Andre Maidxa Arri... Guk Andre Maidxa esaten deu, Arritokietai esaten diou Andre Maidxa, Axkoitidxan´re bai, Andre Maixa. Geo dao, Zuloaganeko finkan dao kapilla.
- (Ana Mari) Kapilla polita da, oso politta.
- (Ramon) Partikularra da, oso politta, Beobiden gurutzia ta oso politta da. Ta geo dao San Miguel de Artadi. Ta geo dao Oikidxan San Bartolome. Hoidxek Zumaiko...
- (Ana Mari) Hoidxe Zumaikuak.
- (Ramon) Zumaiko terrenuan dao San Miguel, San Bartolome, Zuloaganekua...
- (Ana Mari) Zuloaga...
- (Ramon) San Telmo...
- (Ana Mari) San Telmo ta Andre Maidxa.
- (Ramon) Ta geo dao konbentua.
- (Ana Mari) Geo konbentua. Oan beste bat itxi in da, monjetakua, Maria Jose.
- (Ramon) Bai, hor ere kapilla zan lehenore bai.
- (Ana Mari) Kapilla zan ta aurtan, setienbrian, setienbrian itxi zan.
- (Ramon) Kolijidxuan kapilla txiki bat zaken.
- Eta geo parrokiak.
- (Ana Mari) Parrokidxa.
- (Ramon) A! Geo Mercedaidxuan kolejidxuan ta´re kapilla txiki bat gendukan, ta geo parrokira.
- Eta holan, tradizixo gehien edo nun izaten zan? Herriko jentia eta gehien...
- (Ramon) Parrokidxa. Danak parrokidxan. Ta kumunidxo txikidxak eta entierruak eta ezkontzak gehidxenak eta zeak, pesta dana, urteko zea dana, parrokidxan iten da. Nobenak...
- (Ana Mari) Andre Maidxan nobena.

- (Ramon) Nobena Andre Maidxana, baiña nobenak iten zian Inmaculadenak eta iten zian gauzak, parrokidxan ze iten zian, beste ze nobena iten zan? Parrokidxan Inmaculadena ta besteik?

- (Ana Mari) La Inmaculada. San Josena´re bai.

- (Ramon) Geo... San Josena. Eske, arratsaldeko mezetan, goizeko mezetan, iten zian nobenak, danak parrokidxan. Setienbrian Ama Birjin eguna izaten da Andre Maikua ta iten da nobena. Uaindikan hori, ohitura hori dao. Jendia juten da.

- Ta bestela ez da izaten, mezarik eta ez da izaten...

- (Ramon) Bai. Mezik... a! Bueno!

- (Ana Mari) Mezik ez. Mezak Maiatzan sapatuan.

- (Ramon) Hori. Maiatzian ama birjiñen hilla dalako, sapatuetan...

- (Ana Mari) Sapatero-sapatero, meza.

- (Ramon) Meza.

- (Ana Mari) Ta geo nobena setienbrian.

- (Ramon) Ta geo bodak.

- (Ana Mari) Bodak.

- (Ramon) Bodak. Leku polittak dia, leku polittak dia bai San Telmo ta bai hau, frente-frente ikusten dia. Ta hoidxek oso estimatuak dia. Kanpotikan´e etorri iten dia, batez ere San Telmoa, paraje polita dalako, e!

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-03-03

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com